


OSTIRALA. 2001eko Abenduaren 7a

Nafar Karid

516. ALEA!!

To
TINDaya!



Kolaborazioak, gehigarriaren zutabe

Hamar urtetan, Nafarroako euskal idazle behinenak pasatu dira Nafarkariako artikuluetatik

NAFARKARIAk kolaboratzaile askoren lana bildu du hamar urtetan. Mota askotakoak izan ditugu: marrazkilariak, iritzi politiko emaileak, iritzi literarioak, bere eskualdeko berriak jaso dituztenak... Kolaborazioak, ez bairik gabe, gehigarriaren zutabe izan dira.

AZKEN HORIEN ARTEAN AZPI-marratu beharrekoa da, urteekin, produktua sendotzen eta izaera hartzen joan den heinean, NAFARKARIAk bereganatu dituela Nafarroako euskal sortzaileen lumak. Izen ezagunak bildu dira bere zortzi orrietan. Estilo eta izaera guzietako iritziei zabalik egon da beti argitalpena. Batzuk aipatzearen, guretik iragan dira Jon Alonso, Xanti Begiristain, Joxemiel Bidador, Aingeru Epaltza, Juanjo Olasagarre, Patziku Perurena, Felipe Rius, Mikel Taberna eta Xamar; baita Pello Lizarralde, Estitxu Fernandez, Matias Mujika, Juantxo Urdiroz, Maite Urkia eta Pili Yoldi ere.

Egun, Aritz Agirre, Jojo Bidart, Kike Diez de Ultzurrun, Juan Kruz Lakasta, Mikel Reparaz eta Aitor Txarterina dira gurekin. Eta, noski, Bingen Amadoz, Josetxo Azkona eta Pello Lizarralde. Hiru hauek hasiera-hasieratik kolaboratu dute. NAFARKARIA idazleen buru-

tazioen abiatze pista izan da. Felipe Riusek gehigarrian argitaraturiko hainbat zutabetatik sortu zen *Bi argazki eta hainbat polaroid* liburua (Pamiela, 1999), eta Patziku Perurenak eginiko asteroko kolaborazio guzi-guziekin *Trapuan pupua* izenburuko liburua argitaratu berri du Erein argitaletxeak. Gainera, duela ez asko, Joxemiel Bidadorrek *Klasikoak bitxi, arront klasiko* bere kolaborazioko testuak baliatuz, *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920)* testu antologia sortu du (Iruñeko Udala, 2001). Eta gehigarrian kaleraturiko artikuluen baten luzapen gisara, 1998an Iruñeko Udalak Alberto Barandiaranen *Iruñeko Udalaren literatur lehiaketak (1882-1928)* liburua argitaratu zuen.

Emaitza joria izan dela ezin uka: NAFARKARIAk eman

die gure euskal idazle askori plazaratzeko beta, eta balio izan du euskarazko prentsaren egoera apur bat normalizatzeko ere. Gainera, dudarik gabe erraten ahal da Nafarroako euskal kulturaren nor den orok kolaborazioak egin dituela, noiz edo noiz, NAFARKARIA.

Bihoa hemendik gure esker ona guziet; batez ere, hamar urtetan ezgaraiko gure deiak jaso dituzten hirurei.

→ Asier Azpilikueta



ARITZ AGIRRE

AINGERU EPALTZA

MIKEL REPARAZ

AITOR TXARTERINA

BINGEN AMADOZ

MATIAS MUJIKA

JOJO BIDART

FELIPE RIUS

MIKEL TABERNA

JOSETXO AZKONA

ESTITXU FERNANDEZ

PILI YOLDI

JUANJO OLASAGARRE


XAMAR

PELLO LIZARRALDE

MAITE URKIA

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Proteinak, bitaminak eta mineralak, eta hauetat gain, nitrogenoa, oxigenoa eta karbonoko dioxidoak, guztiek —eltzearen barrenean— elkarren kontra joz, bortizki, dantza eta dantza egiten, mami zuriaren temperatura gora doan bitartean. Bero-gorakada nabari da berehalaxe: gas karbonikoa ugalduz doa etengabe eta aire burbuilak bizkor dabilta isurkitik zehar. Eltze hegiraino igo da esnegaina: Argentina osoa bor-bor bat da.

Irrati aparailutik milonga melenga bat aditzen da Martaren sukaldean. Soinu goibela da, haren begirada bezalakoa. «Esne gozokia egiteko, erabil itzazu soil-sollik esnea, azukrea eta bainila. Ez ahaztu inoiz!», esango zion bere amak hamaika aldiz neskata zelarik. Baina oraingoan ere, beste askotan egingo zuen bezala —zenbat buruhauste ez ote zion ama zenak sortarazi bizardun hura senartzat hartu zuenean!—, ez zion kasurik egin. Irriño egin zuen maltzurki eta, kanela txotx batzuk apaletik oratuz, banan banan bota zituen eltzera. Martak gogokoa zuen kanelaren kolorea, beste kolore

Marta

bat burura baitzekarkion ikusi orduko, bere seme bakarraren begietakoa, alegia.

Esne gozokiak badu festa kutsua, bada haurtzaroan errotutako irudi usaintsuen ekarle bat-batekoa. Dastatuz bat, deblauki pizten da oroimena, eta orduan, oharkabea, galdutako denboraren bila zoazela ohartzen zara, harik eta Proust-en madalenarekin topo egin arte. Hala gozokia!

Esne gozokiak badu, bidenabar, sinpletasunak dakarren perfekzioa. Hiru osagai baino ez dira behar: behi esnea, azukrea eta bainila. Dena den, eltzeari kanela, limoi azala, txokolate xehetua, intxaur puska, arraultza eta basterik gehitzen dizkionik ere bada. Puristen atsekabea! Atontzeko tresnek, bestalde, kobrez behar dute izan. Hori egin ezean, zio misteriotsu batengatik edo, esnea beti itsasiko baita hondoari. Azkenik, gozoki on bat egingo bada, nahitaezkoa da ama bat

tartean izatea, eta Marta ama bat da, senarra eta seme bakarra gabea, biak 76ko apirilko egun batean hurrupatuak.

Bi orduz jardun du Martak esnekia eragiten, bi orduz bere baitara bildua, eta emeki eragindako bira bakoitzean bere bi gizon kaneladunak irudikatu ditu eltzetik irteten, esnegaiaren bor-borrean. Larunbatero, askaria prestatzen duen guztietan, sentitu ohi du fantasia bera. «Jaten dakienak, badaki itxaroten», errepikatzen du maiz lelo gisa.

Usaimenak esaten dioenez, gozokia prest dago jadanik. Mantso jaiki da aulkitik, eta, hiru plater eta hiru kutxeta armariotik hartuz, mahaian paratu ditu itxaropentsu. Arratsaldeko seiak joak ditu ordulariak, erraina eta iloba laster izanen ditu etxean.

Oharra:

Josetxo Azkonak 1997an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen otsailaren 14an, 268 zenbakian, argitaratu genuen artikulua honengatik.

Kolaboratzaileak

1991 | Felipe Rius / Alberto Barandiaran / Bingen Amadoz / Iosu Chueca / Josetxo Azkona / Enrike Diez de Ultzurrun / Jon Alonso / Mattin Kapitansoro / Patxi Ulaiar / Aingeru Epaltza / Asisko Urmeneta / Txaro Satrustegi / Izaskun Ibarra / E. Perutxena / Pello Lizarralde / Joxe Lacalle / Zaldi Eroa | 1992 | Xabier Unanua / Xanti Begiristain / Mikel Taberna / Karlos Apestegia

Denondarako zokoa

Atzo hamar urte bete ziren Nafarkariakó lehen zenbakia atera zenetik

GRAMATIKA GORABEHERA, LEHEN zenbaki horretako azaleko sarrerak —Alberto Barandiaranek idatzia— argi utzi zuen NAFARKARIAren izaera zer nolakoa izanen zen: «Gaur jaio den gehigarri honek baditu asmoak eta gogoak. Nafarroan sortua, nafarrendako egina, hemengo gaiak ditu ikusmiran eta buruan. Astero asteró, hori bai, lurralde honetako bazterrak ukitzen saiatuko da, bertako biztanleen berri ematen. Harrokeririk gabe, zintzo, baina zuzen. Eta horretarako lana eta ahaleginak ez dira faltako, indarrak ez bait dira gutxi. Geroak erranen». Geroak erranen, edo esango, egun Albertok idatziko lukeen bezala.

Azalean bertan, Bingen Amadoz —orduan ere Euskadi Irratiko esataria, baina hamar urte gutiagorekin— bere zubitian barneratu zen, izenbururik gabeko zutabeen karrera luzea hasiz. «Batzuk sortzaile izateko duten trebetasunak betidanik liluratu nau», zioen. «Beldur naiz ez ote den idazleenganako daukadan lilura hori pittin bat behintzat ezabatuko, gaur bezalakoan, bata bestearen atzetik hitzak paperetan jartzeri hurbilketa bilatzen badiot». Hasieran dena zen beldurra.

Alli, Zupo Ekisoain eta Balerdi Balerdi

Bigarren orrian asteko pertsonaien berri ematen genuen. Hasteko, Nafarroako orduko lehendakaria genuen mintzagai: «Juan Cruz Alli Nafarroako presidentea Ardanza lehendakariarekin bildu zen joan den astean Ajuria Enean, bi autonomi elkarten arteko harremanak zehaztu eta sakondu asmoz. Lehendakariak 'historikotzat' jo zuen bilera, eta Allik 'garrantzitsutzat' eritzi zion». Historikoa, ez bairik gabe.

1991ko abenduaren 6an, EGUNKARIAk urtebete egin zuelarik, argia ikusi zuen NAFARKARIAren lehen zenbakiak. Baten batek 'Denondarako zokoa' izenburua paratu zion estreinako zenbaki horretako azalari eta, oraindik ere, 'denondarako' hori deklinabideko zein kasu marka den aztertzen ari da bat baino gehiago.



Juanjo Olasagarre lehen zenbakian egindako elkarrizketan.
● JOXE LACALLE

sika taldea genuen hizpide. Orduan beren lehen maxi singlea grabatu zuten Iruñeko Gor disketxe sortu berriarekin. «Abesti guztiak Toño Muro taldeko abeslariak egindakoak dira, 'Tralara' izan ezik, horretan Pello Lizarralde ere hartu bait du parte».

Gure Aukerak agenda atalari dagokionez, ostiralean bertan Su Ta Gar eta Leize taldeen kontzertua izatekoa zen Lakuntzako Ilargi dantza lekuan, eta Mikel Saralegi 290 kiloko harri koardratua jasotzen saiatzeko zen Leitzako

Amazabal pilotalekuan.

Bestalde, irratien atalean, Euskalerrria Irratia, Xorroxin eta Aralar irrati euskaldunetako landara, Herri Irratiak eta RNE1k euskarazko irratsaio bana zutela aipatzen genuen, *Gautxori* eta *Zuri eta beltza*, hurrenez hurren.

Laminazioak eta Olasagarre

Erreportaia zentrala Lesako Laminazioak lantegiaren etorkizunari buruzkoa zen. Garai haietan «haize bilduak» zeuden siderurgian. «Bizkaiko Labe Garaiak (AHV), Ensidesa eta Acenorren egoera txarrak kezka sortu du Nafarroako hiru lantegietan —Lesako Laminaciones (AHV), Berako Fundiciones (Acenor) eta Iruñeko Perfrisa (Ensidesa)—, birmoldaketak eragin handia izanen baitu hiruretan. Egoera bereziki kezagarria da Baztan-Bidasoan, bi enpresak zonalde osoaren sustengu eta oinarri bilakatu baitziren aspaldian». Langile batzordeko kideei elkarrizketa egin genien. Langileek birmoldaketan parte hartu nahi zutela erran zuten.

Seigarren orrialdean, egun sinistezina badirudi ere, denborapasa eta hainbat gazteren kolaborazioekin, Nafarroako Gobernuaren publizitatea ageri zen. *Euskararen iraupena Nafarroako gaztekeran* erakusketaren berri ematen zuen.

Eta bukatzeko, Juanjo Olasagarre etxeko zapatiletan. Arbizuko idazleak *Gaupasa* bere lehen poesia liburua argitaratu berri zuen, eta hura izanen zen nafar batek Durangoako Azokan aurkeztuko zuen bakarra. Leroburuan agertzen zenez, Olasagarreri «gezurra» iruditzen zitzaion «poesiaren sakralizazioa». «Nire ustez mundu guztiak badu zerbait esateko. Batzuk ausartzen dira eta beste batzuk ez». Halere, badirudi gurean asko ausartzen zirela: «Garen euskaldunentzako idazle gehiegi dago. Agian garaiaren ezaugarria da, jendea oso ezkorra baita, asaldatuta, eta paperean botatzen ditu gazuzak».

→ Asier Azpilikueta



Alberto Barandiaran
1991ko abendua / 1995eko urria

Haurdunaldiaren une gorenak

Niri, ustez gainontzekoei bezala, mahai gainean paratu zidaten, bai edo bai: «NAFARKARIA hik egingo duk». Hitz batekin definitu beharko banu, bederatzik hilabeteko egonaldiarekin definituko nuke: haurdunaldia. NAFARKARIA bakoitza horixe zen niretzat. Ostiraletik ostegunera luzatzen zen haurdunaldia, une onak eta ere txarrak zituena eta, batez ere, nerbioz betetako sei eguneko astea. Osteguna, deskantsu eguna, eta ostirala, umé jaioberría ikustekoa. Baina datorren astekoak buruan ordurako.

Argaltzeko ez ezik beste zerbaitetarako ere balio zidan NAFARKARIAk: Nafarroa deskubritzeko. Joxek bere lana Egin-en bukatu orduko abiatzen ginen, bazkalondoren, Leitzara, edo Erronkarira, edo Estellerrira. Munduan aurreneko aldiz kontatuak balira bezala kontatzen genituen gaiak: mugaz bi aldeetako arteko harremanak, Aezkoako etorkizuna, etnografia, Bardea, almadiak...

Une gorenak ezin ahaztu. Afari ederra egin genuen Xalbadorren etxean, Urepelen, andrea eta alabekin. Gaua zen, eta larunbata, eta bagenuen beste konpromiso bat lagunekin, baina beti gogoratuko dugu artzain baten etxe xume hartako goxotasuna. Nola, kopekin, jarri genuen grabagailua eta Mixel hasi zen barrena husten. Eta nola begiratzen zion andreak. Iruñera itzulita bi orkatz ikusi genituen Alduden.

Inda anaiekin Donamariako bentakoa ere zoragarria izan zen. Posterraino egonaldia luzatu eta hantxe hasi ziren gaueko lanei buruz kontu kontari, zekitenaren erdiaren erdia gure mikrofonoak zurrupatuta; Rafael Moneorekin Madrilan izaniko elkarrizketa, edo Dora Salazarrekin Altsasun egindakoa; Iruñeko Udal literatur lehiaketan inguruko erreportaia —benetako aurkikuntza—, edota Altsasuko apaiz ahaztuaren istorioa...

Lan horiek gero EGUNKARIAN egindako askok baino poz gehiago eman digute. Bazuten atzetik lan bat, hurreratze bat, ehizara joaten direnek egingo dutenaren antzekoa, eta lortzen zen hurbiltasun berezia pertsonaiekin.

Askotan, gure artean, begiratzen diegu enkoadernatutako aleei, eta harritzen gara egindako lanarekin ●

Kolaboratzaileak

Enrique Garbayo / Patziku Perurena / Ana Unanue / Vicent Gil de Paules / Mariano Izeta / Juan Kruz Lakasta / Piarres Xarriton / Mixel Esteban / Xabier Zabaltza / Mikel Belasko / Pablo Joxe Aristorena / Angel Garcia Etxandi / Juanjo Olasagarre / Ainhoa Arroiabe / Arantxa Agirreurreta / Joxe Mari Larrera / Jeremias Erro / Oskar Montero / Juantxo Urdiruz / Xamar

← aurreko orrialdetik dator

gai genituen: Mariano Izeta eta Jose Maria Jimeno Jurio.

Mariano Izeta erlojularia artikulu ttiki batean agertu zitzaigun lehendabizikoz 1991ko abenduan Elizondon egin behar zioten omenaldi bategatik. Hain zuzen ere, horren karietara, elkarrizketa egin genion bi aste geroago: «Ez dut behin ere bertsozik kantatu». 1992ko urtarrilan beste omenaldi bat egin zioten, eta 1996ko abuztuan gurean laugarrenez agertu zen hiztegi batean «Baztango euskararen bizirik dauden solasak eta hitzak» bildu zituelako. Eta akitzeko, beste omenaldi bat egin zioten Elizondon, Bertsolari Txapelketaren finalean, 1998ko apirilean. Hortaz, bortz puztarri Izeta-erendako.

Jose Maria Jimeno Jurio historialaria, berriz, 1992ko urtarrilan ekarri genuen estreinakoz eta «toponimia solasean ari zaigun lurra» dela erran zigun. 1995eko azaroan omenaldia egin zioten Nafarroako hainbat elkarrek eta guk orrialde bete eskaini genion. Eta 1996ko urrian beste elkarrizketa bat 'Euskararen historia Nafarroan' liburua argitaratu zuelako: «Batua lehenago iritsi izan balitz euskarak hobeto eutsiko zion bere lehenengo eremuari». 1998ko otsailan berriz bi orrialdeko elkarrizketa egin genion: «Nafarrek orokorrean ez dakigu deus euskarari buruz». Eta 1999ko irailan berriz ere gurera etorri zen Patxi Salaberriekin batera Artaxoako toponimiaren gaineko liburua idatzi



Jokin Larrea, Manolo Gil eta Juan Kruz Lakasta, 1995eko urtarrilan. ● JOXE LACALLE

zuelako. Bost puztarri ere Juriorendako.

Berdinketa beraz? Ez, inondik inora. Izan ere, Jimeno Juriok taldea osatzen du Roldan bere semearekin. Roldani hiru elkarrizketa egin dizkiogu 1999tik. Beraz, Jimenotarrak nagusi zortzi puztarriekin!

Kaixo eta agur

Hamar urtetan gauza anitz iragan da gure zortzi orrialdeetatik. Zenbait prozesu oso gertutik jarraitu ditugu: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, hizkuntza politikaren garapen garrantza, Nafarroako toponimiaren ikerketa sakona,

intsumisioa, Mendillori, Seat-Volkswagen...

Gauza batzuk sortu dira: Baztango kiwiak, Ze Berri?, Bierrik, Ttipi-Ttapa eta Xaloe telebistak, haize errotrak, Biaizpe telezentroa, Euskalerrria Irratia Sadarren...

Eta beste batzuk hil: Lore Etxea, Navarra Hoy egunkaria, euskal ahotsak Nafarroako erdal irratietan, Ultzamako Danone, IKaren Lesakako barnetegia, seinale elebidunak...

Makina bat kontu hamar urtetan. Eta oraindik hamaika ikustekoak gara.

→ Asier Azpilikueta

Hondarreko azkenak

Juan Kruz Lakasta kazetariak komentatua da seguruenik Nafarkarian gehien agertu den hitza «azken», dela. Eta ez zaio arrazoirik falta. 1992ko irailan hasi ginen horrekin, Nafarroako azken txakolingileei buruz hitz egiten. Hogeitahamar urte lehenago, Nafarroan 1.300 hektarea omen zeuden txakolina egiteko, Agoiztik Etxauriraino, Iruñerria barne. Baina erreportaiak egin genuen garaian, dozena bat txakolingile besterik ez ziren gelditzen, **Victor Artazkoz** haien artean, Itzarbekoa.

Eta urte bereko urrian jakin genuen udan Iruñerriko azken euskaldunzaharra hil zitzaigula, **Esteban Garbisu**, Xulapaingo Beorburu herrikoa. Mikel Belaskok kontatu zigun. Hiltzeaz batera euren euskara hilobiratzen zutenekin segituz, Kike Diez de Ultzurrunek **Dionisia Garate** emazteki zaraitzuarrari lau urte lehenago egin zion elkarrizketa argitaratu genuen 1993ko apirilaren.

Urte bereko ekainean Iruñeko azken ghe-ttoan sartu zen Nafarkaria, ijitoz beteriko **Mujika** etxeetan. Hainbat hilabete geroago bota egin zituzten. Eta abuztuan **Jesus Subizarekin** egon ginen, Iruñeko azken

txokolategilearekin, Amaia kaleko bere tailerrean.

Hur Gorostiagak 1994ko abenduan Nafarroako azken ikazkinetako bat deskubritu zigun, **Manuel Alzugarai**, Urepelen bizi zen 79 urteko lesakarra. Eta 1995eko azaroan jakin genuen Pirinioak zirela hartz arren azken gordelekua, bertan bizi baitziren bederatzia ale. Horregatik, Nafarroako Gobernuak **hartz arrea** berreskuratzeko plana abiatu zuen. Camille ez genuen oraino eza gutzen.

1998ko irailan, **Luzia Goñik**, ordurarte Nafarkariako afariak urtero prestatzen zituena, ferietan taloa egiteari utzi zion, «staloa negoziotako hartu zutelako».

Baina ogibide galdu hauen artean dena ez ziren agurrak izan. 1998ko abenduan eza gutu genuen **Mitxel Ibañez** iruindarrak berreskuratu zuela aitona Frantzian txanpaina egiteko ikasitako era. Oloritzeñ paratu zuen upeltega, Orbaibarren. Eta 1999ko irailan, bere azken Nafarkarian, Irene Arriurietak kontatu zuen nola **Jorge Iribarren** kaikugile donezteberrak Patxi Larretxea bere osabak irakatsitakoak ongi aski ikasi eta haren lekukoa hartuko zuela.



Asisko Urmenetaren marrazki bat 1993ko Nafarkari baterako. ● MIKEL SAIZ

kartzelako
gaia
Juan Kruz Lakasta

Kroketa usaina

Gau hartan kartzelako jantokian giroa ez zen ohikoa. Presoon begiradek dirdir berezia zuten, etsita dauden gizonen begiek, edozein gauza egiteko prest dauden gizonen begiek izaten ohi dutena hain zuzen ere. Funtzionariak berehala atzeman zuten dirdir berezi hori, eta atzeman bezain pronto urduri jarri ziren. Tentsioa presook erabili behar izaten ditugun plastikozko laban traketsen moztu zitekeen. Jantokiari motin lurrina zerion, eta usain atsegin horren jatorria plastikozko laban, goilara eta sardesken ondoan zegoen, metalezko bandeja hotzen erdian hain zuzen: krocketak ziren, eta usaina, kroketa usaina.

Presook gutxitan jaten ditugu krocketak, kartzelako krocketak gutxitan egoten dira onak, eta egun hartako krocketek —batek daki zerenolako miraria dela medio- Argiñanoren maisu-lana ziruditen. Preso bakoitzari hiru besterik ez zizkiguten eman, eta guztiok gehiago nahi genituen, kroketa, patxaran, askatasun gehiago... Guztiok gure eserlektatik altxatu, eta funtzionariengana jo genuen, gehiago eskatzera. Motin lurrina motin erreala bilakatzear zen. Azkenean, baina, zerbitziburuak, guztiak zigortuko gintuzten mehatxua eginez, giroa baretzea lortu zuen. Preso gehienak eserleketara itzuli ziren, baina gutxi batzuek, putre zikin batzuek, ate ondoko bandeja handirantz jo zuten, soberan geratu krocketak jasotzeko. Aitortu beharra daukat, ni neu gizon gogaikarri horien artean nengoen. Nire amonak dioenez, jakin badakizu kartzelan nola sartzen zaren, baina ez, ordea, bertatik nola aterako zaren.

Hautzarroan zehar guztiok entzun ditugu gure gurasoen ahotik gisa honetako esaldiak: «Ni bezala gerra ostean hazi izan bazina, guztia janen zenuke». Intsumituen seme-alabek ere antzeko sermoiak entzuten dituzte, «kartzelan ematen zigitena jan beharko zenuke zuk» eta antzekoak; izan ere, haien aitak izanen garenon urdiai espetxe honetan pairatzen ari direna, eufemismo batekin definiturik, ez da normala. ●

Oharra:

Juan Kruz Lakastak kartzelan idatzi zituen 1995-II-3 eta 1996-I-12 bitarteko artikuluak, intsumisio izateagatik urtebete eman baitzuen Iruñeko espetxean.

Kolaboratzaileak

/ Uxue Zabaleta / Mikel Saiz / Asier Azpilikueta / Fermin Goñi / Mikel Uhartea / Amaia Mundiñano I1999I Mikel Beramendi / Asier Legarda-ereño / Gorka Ovejero / Miren Iriarte / Josu Santesteban / Daniel Urrutia / Iñaki Vergara / Aitor Arotzena / Rakel Goñi / Txari Eleña / Aritz Agirre / Uxue Montero / Jojo Bidart / Eli Belauntzarán I2000I Aitor Txarterina

Sosik gabe

IRAGAN ABUZTUKO OSTIRAL BATEAN hedabideetan euskara sustatzeko diru laguntzen deialdia argitaratu zuten Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Espero genuen bezala, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikako agintariek, azken urteko «hizkuntza politikoaren» ildoari jarraiki, diru laguntzen esparrutik kanpora utzi zuten NAFARKARIA.

Zuzenean

EGUNKARIAREN KONTRA

Nafarroako Gobernuak bi murre handi paratu zituen NAFARKARIAREN aitzinean honek aurtengo laguntza jaso ez zezan. Lehenik eta behin, gobernuak eskatu zuen laguntza jasoko zuen pertsona juridikoak egoitza soziala Nafarroan bertan izatea. NAFARKARIA EUSKALDUNON EGUNKARIAREN gehigarria da, eta honek, jakina denez, Gipuzkoan du egoitza, Andoainen. Murre hau ez zen zeharkaezina. Bai, ordea, bigarrena.

Nafarroako hedabideetan euskara sustatzeko diru laguntzen deialdiak bi atal nagusi zituen, bata euskarazko hedabideena eta bestea gaztelaniazkoena. Gaztelaniazkoetan lau hedabide motaren arabera banatuko zen dirua: eguneroko prentsa eta bere gehigarriak; aldizkako argitalpenak (astekariak, hamabostekariak...); irratia; eta telebista. Bada, euskarazkoen atalean, hiru

Nafarroako Gobernuak aurtengo diru laguntza ukatuko dio NAFARKARIARI, bederatzi urtez eman eta gero

Nafarroako hedabideetan euskara sustatzeko Nafarroako Gobernuak banatzen hasi zen diru laguntzen kariatara sortu zen NAFARKARIA, 1991ko bukaeran. Gehigarriak beharrezkoa zuen diru hori, eta aurtengoa, bederatzi urteko ohitura hautsiz, ez du sosik jasoko Nafarroako erakunde gorenetik.

NAFARROAKO GOBERNUAK NAFARKARIARI EMANIKO DIRU LAGUNTZA URTEZ URTE

URTEA	DIRU LAGUNTZA
1992	7.000.000
1993	7.000.000
1994	7.000.000
1995	6.400.000
1996	6.700.000
1997	6.700.000
1998	6.150.000
1999	7.110.000
2000	7.286.400
2001	0

hedabide mota besterik ez zuden. Euskarazkoen artean ez zen eguneroko prentsa eta bere gehigarriak atalik. Munduan euskarazko egunkari bakarra dagoenez, irakurleak esku artean duena hain zuzen ere, erabaki horrek zuzenean jotzen zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAREN kontra.

«Euskara garatzeko interesa eta eragina»

Nafarroako Gobernuak, bi aldaketa horiez landara, beste hainbat aldaketa egin zituen deialdian. Horien artean aipatzekoa da irizpide berria erantsi izana, erabat subjektiboa: «Eskara Nafarroan euskara garatzeko duen interesa eta eragina». Urri aldera bilera egin zuten EGUNKARIAREN zuzendari Martxelo Otamendik eta EGUNKARIAREN Iruñeko ordezkariak buru Alberto Barandiaranek

Pedro Pegenautekin, Hizkuntza Politikako zuzendariarekin alegia. Pegenautek orduan erran zuenez, euren «inportantea» zen euskara gaztelaniazko hedabideetan sustatea.

Pegenautek hitz horien isla izan da diru laguntzen banaketa ebazpena. Azaroaren hasieran egin zuten. Horretan bi gauza dira deigarriak: EUSKALDUNON EGUNKARIA zazpi milioi pezeta jasotzetik deus ez jasotzera iragan da; eta *Diario de Navarra* 456.405 pezeta jasotzetik 5.204.052 pezeta jasotzera pasatu da.

Azken hau bereziki larria da. Nahiz eta garrantzitsua den gaztelaniazko hedabideetan ere euskara agertzea, *Diario de Navarra*-k igandeetan —eta ez igande guztietan— argitaratzen duen *Nafar Izkuntza* orriari hirugarren laguntza mamitsuen eman dio, NAFARKARIA gehigarria dirurik gabe utzi duen bitartean. EUSKALDUNON EGUNKARIAK Nafarroako Gobernuaren erabakiaren ondorengo egunetan itaundutako euskaltzaleek ahobatez salatu zuten, «erabakiak bat egiten du Union del Pueblo Navarroren gobernuak hizkuntzaren gainean duen iritzi atzerakoi eta zaharkituarekin eta euskararen kontra hartu duen jarrera gogorarekin».

→ Asier Azpilikueta

amen eta omen

AINGERU EPALTZA




Gure arteko lokarriak nabarmendu eta bereizgarriak leuntzeko —ahantzazteko?— xedeak ernatu du, bertzeak bertze, gure garaiko euskal prentsa. Zokoari ihesi eta kanpo-ederra etsai, ez diogu alferrik «nazional» izenondoa erantsi, handigarri.

Zokozaleak gara, alabaina, zokoa adoratzeko ez badugu ere. Beharrezkoa zaigu gure inguru hurbilenaren berri jakitea, karrika zonbi galdu batzuen itxuran zanpatuko ez badugu. Atsegin zaigu geure burua ispilaturik ikustea hedabideen mirailan, eta hedabide nazionalak, nazionalgiak direnean, irudi distortsionatu, urruna, nabardurarik gabekoa eskaintzen digute ardura.

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ohiko orri eta sailetan sartzen ez diren albisteei lekua egin die NAFARKARIAK hamar urtez, duin eman ere. Astearen behin zortzi orrialdeko eranskina ez da noski guk amesten genuena, baina aspaldi ikasi genuen nahi genuenaren eta ahal dugunaren artean bereiz-

ten. Gehigarri apal honek non trebatua eman dio Nafarroan inoiz izan ez den kazetari talde bati, eta ezinbertzeko plaza, berriz, ontzearekin haziz joan den idazle andanari. Ez dira luma berak lehen denboretakoak eta oraingoak.

NAFARKARIAKOEK



jakin izan dute, zalaparta handirik gabe, belaunaldien arteko ordezkapena egiten. Hasierakook, bertze probaleku batzuetako eskarmentua ekarrita, lekua utzi genien gazteagoi. Gure ondotik etorritakoen sinadura ezezagunak zutabegintzaz haratagoko lan mardulagoen azaletan ikusi ditugu geroago. Oraingoan artean bide berdina jorratuko dutenak ez dira, hain segur, guti izanen. NAFARKARIA gabe, nekez ikusiko genuen gure herrialdean euskal izkribatzaileen gaur egungo loraldia.

Orain, bete duen eta betetzen ari den eginkizunaren jakitun zirelako, zokoaren adoratzailer nagusiek sosik gabe utzi dute zokoaren berri ematen ziguna. Helburu garbia, haiena: haustea gure irudiaren errepika doiena eskaintzen zigan miraila. Erromes ibiltzea dagokio orain NAFARKARIARI, euskalgintzaren puska handi baten antzera. Ez dadila dirulaguntza falta izan betikoz desagertzeko arrazoia. Nik bertze hamar urte ospatu nahi nituzke eta, zer arraio, Pegenautek ez diogu halako alegantziarik emanen, ezta?

Kolaboratzaileak

/ Nekane Otermin / Matias Otxoa / Idoia Marcellan / Cristina Beriain / Alfredo Alvaro / Eva Aranguren / Itziar Luri / Martxelo Sotes / 2001 / Arantzazu Zabaleta / Estibalitz Ortega



Patxi Huarte-Zaldi Eroa KOMIKIGILEA

«Zoinen den gaiztoa populua!»

■ **PATXI HUARTE.** - Ostiraleko NAFARKARIAN argitaratzen duzun tira elitista xamarra dela diote batzuk. Egia al da epaimahaikideei berexiki zuzendua dagoela?

ZALDI EROA. - Inolaz ere ez!! Nire pertsonaiak bizirik daude. Tirak egiteko momentuan nik xulo batetik begiratu eta ikusten dudana islatzen dut. Noski Jatorren Yakintza zabalagatik askotan neuk ere ez ditut ulertzen. Orain dela gutxi jakin nuen Eduardo Gil Bera idazle bat dela.

■ **P.H.** - Irakurri duzu?

Z. E. - Bai, gaztelaniaz.

■ **P.H.** - Ez al dizu ematen idazle euskaldun bat erderaz irakurtzea?

Z. E. - Egia esan, nire ama hizkuntza gaztelania da. Gehienbat gaztelaniaz irakur-

Patxi Huartek 1994an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen 'Noski Jator' izenburuko komiki tirengatik. Horren kariaz, urte bereko uztailaren 22an, Patxi Huartek elkarrizketa egin zion Zaldi Eroa bere 'alter ego'-ari, «euskal kazetaritzan iraultzailetzat jo daitekeen genero berrian».

tzen dut, eta komikiak ere erderaz pentsatzen ditut. Hala eta guztiz ere, filosofia ez euskaraz, ez erderaz ez dut asimilatzen ahal. Nahiago ditut 'Kutsidazu bidea, Ixabel' moduko liburuak.

■ **P.H.** - Beste batzuek diote komikiak euskaraz egiten dituzula erderaz eginez gero lortuko ez zenukeen arrakasta lortzeko.

Z. E. - Zoinen den gaiztoa populua! Nire amak egunero «ikus duzu zein ona Orozek egin duen tira?» galderarekin agurtzen nau. Nik ez nuke horrelako arrakastarik izango, nahiz eta erderaz jardun, hori seguru. Baina ni, gehienbat, euskalduna sentitzen naiz eta naizen gauza orotaz barre egin nahi dudalako egiten ditut tirak euskaraz. Geure buruaz barre egiteak faxistotik hurruntzen gaitu. Faxistek ez dute sekula bere ideiez barre egiten.

■ **P.H.** - Zure tiretan ez da emakumerik ageri. Gizonetzakoak bakarrik ageri dira...

Z. E. - Beno, jum, rejum, rejum! Bai... baina badago

ardi bat! Lulubel du izena. Zehazki ez da emakumea eta ez du emakume baten papera betetzen... Beno, hau ezabatu faborez. Etzazu argitaratu, badaezpada. Esango dut badudala asmoa pertsonai femenino bat sartzeko, ekologista bat eta kitto.

■ **P.H.** - Gaien aldetik, ez al zaizu aspergarria egiten beti euskara gora, euskara behera ibiltzea.

Z. E. - Intsumisioaz ere aritzen naiz. Xabi Karruru pertsonaia kartzeleratu zidatenetik oso kontzientziatua nabil. Esan bezala, ekologismoaz aritzeko asmoa ere badaukat. Haatik, euskara da nire gai nagusia eta hala izango da beti. Nik euskaldun mundu txiki honetatik atera ditut nire eguneroko patatak eta hori eskertzekoa da. Zor gastronomiko bat daukat euskararekin! Egunero jaiki eta

«Nire pertsonaiak bizirik daude. Tirak egiteko uenaxulo batetik begiratu eta ikusten dudana besterik ez dut isladatzen»

ispiluaren aurrean oihukatzen dut «Garaziko herria bededinka nadila!!!», ikurrina txiki bat astintzen dudala. Ondoren AEKra noa lanera, indarberritua.

■ **P.H.** - Hitz egin piska bat Nafarroa Kapitainari buruz. Ez al dira surrealiste-giak Marte planetan kokatzen dituzun historiok?

Z. E. - Surrealistak? Batere ez! Gure errealitate gordina azaltzen dut. Iruñean behintzat euskaraz aritzen naizenean planeta batera teletransportatua sentitzen naiz, non lau martzianok martzianoen kultura eta hizkerari eutsi nahian gabiltzan. Zentronikora euskarazko klaseak ematera joaten direnek superheroi tratua merezi dute, beraien misiolaritza baino latzagoa da eta.

■ **P.H.** - Pertsonai batekin hasi zinen, baina geroztik ugaldtu egin dira.

Z. E. - Bai, allah da (jainko bakarra). Adiskide batek esan zidan nire pertsonalitatearen zati desberdinak direla: Noski Jator intelektual itxurakoa, Ardia integrista eta inuxentea, Loritza gaztelaniazalea eta ziniko hutsa eta Kurruru nire karikatua. Mundu txiki bat egin nahi nuen, ez pertsonai

bakarreko istorioak, eta nire ustez lortu dut. Astean behin egiteko zenbait irakurlerentzat korapilatsu samarra bada ere, ohizkoentzat eskertzekoa izango dela uste dut.

■ **P.H.** - Zure lanetan zerk du garrantzi gehiago: gidoiak edo marrazkiak?

Z. E. - Gidoiak, ez bairik gabe. Marrazkiei dagokienez, oso irakasle ona izan dut, Jokin Larrea maixu ezaguna. Berak berriz oso ikasle txarra izan du. Ez naiz marrazkilari aparta eta, oraindik ez dut nire estiloa aurkitu.

■ **P.H.** - Rikardo Arregi saria alde batera utzita, zer suposat du zuretzat NAFARKARIAN lehenbiziko aletik jardun izanak?

Z. E. - NAFARKARIA da munduko gehigarrikerik hoberena. Eta Alberto Barandiaranek, gure jefek Karrantako marmol txurian taiatua dirudi. Hain da langilea eta adoretua! Askotan, oharkabea, mailukada bat ematen diot buruan eta esaten dut: «Parla!», Miguel Angelek Moisesekin egin zuen bezala. NAFARKARIAko kolaborazionistak ere, orohar, primerakoak dira. Gauza bat aitortu nahi nuke: Nik, egunero jaiki orduko, «Gora NAFARKARIA! Gora gure gehigarria!», oihukatzen dut.

■ **P.H.** - Lehen 'Garaziko herria bededinka nadila' oihukatzen duzula esan duzu.

Z. E. - Benetan? Alda ezazu, bada. Nahiago dut gure gehigarria gorapatzen eta, gainera, zer zor diogu guk Garaziko herriari?

